Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko maiatzaren 17a, astelehena — 90 — Lunes, a 17 de mayo de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzarrak, 2020ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Iurramendi Egoitza Erakunde Autonomoaren desegiteari.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikuluak xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Tolosa, 2021eko maiatzaren 5a.—Alkatea. (3132)

*Iurramendi Egoitza Erakunde Autonomoaren desegitea*

*Lehena.* Iurramendi Egoitza Erakunde Autonomoa azkentzea, 2020ko abenduaren 31ko ondorio-datarekin.

*Bigarrena.* Indargabetzea Iurramendi Egoitza Erakunde Autonomoaren estatutuak.

*Hirugarrena.* Korporazioak hartzea erakundearen oinordekotza unibertsala, eta Udalak berak desegindako erakunde autonomoaren eskubideak eta betebeharrak bere gain hartzea, KABIA foru erakunde autonomoaren esku jarri ez den guztian.

*Laugarrena.* Formalki iraungitzat jotzea Udalak erakunde autonomo horren alde egindako ondasun-lagapena edo atxikipena, eta Udalak erakunde autonomoaren jabetzako ondasun guztiak bere gain hartzea, eta Udalaren ondasun eta eskubideen erroldan sartzea; horrek ez du eragotziko Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde egindako mutazio demanialaren ondorioz ondasunak eskualdatzea, 2019ko martxoaren 29an izenpeturiko hitzarmenaren arabera.

*Bosgarrena.* Espresuki eta formalki onartzea tokiko erakunde autonomo horren aurrekontuko saldo hartzekodun edo zordun guztien txertaketa udal aurrekontuan; eta Udala guztiz subrogatzea eskubide onartu, likidatu eta kobratuetan edo kobratzeke daudenetan, eta hartutako obligazioetan, likidatuta eta ordainduta daudenetan edo ordaintzeke daudenetan; eta arlo horretatik eratorritako guztiaz erantzutea, akordio hau indarrean sartzen denetik aurrera; horrek ez du eragotziko aurrekontuan egin beharreko mugimendu, ohar edo eragiketak egitea, tokiko erakunde autonomoaren aurrekontu osoa likidatzeko ondoriozko datan. Berdin gertatuko da aurrekontukoak ez diren zordunen eta hartzekodunen saldoekin.

Halaber, kontaketa-akta 2020ko abenduaren 31ko edo erakunde autonomoa desegiten den eguneko erreferentziarekin formalizatu aurretik, erakunde autonomoak finantza- eta kutxa-erakundeetan dituen kontu korronteetako saldoak udalari transferituko zaizkio eta, ondoren, kontu guztiak itxiko dira. Era berean, jardungo da erakunde horren aldeko abalekin eta berak jarritakoekin.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el el 24 de septiembre de 2020, aprobó inicialmente la disolución del Organismo Autónomo Residencia Iurramendi.

En cumplimiento del artículo 49.b de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, esta aprobación inicial se ha expuesto a información pública durante treinta días laborales a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, para la presentación de reclamaciones.

Habiendo finalizado el plazo de información pública sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobada definitivamente.

Tolosa, a 5 de mayo de 2021.—La alcaldesa. (3132)

*Disolución del Organismo Autónomo Residencia Iurramendi*

*Primero.* Disolución del Organismo Autónomo Residencial Iurramendi, con fecha de efectos 31 de diciembre de 2020.

*Segundo.* Derogar los Estatutos del Organismo Autónomo Residencia Iurramendi.

*Tercero.* Asumir por parte de la Corporación la sucesión universal de la entidad así como los derechos y obligaciones del organismo autónomo disuelto por el propio Ayuntamiento en lo que no se haya puesto a disposición del organismo autónomo foral Kabia.

*Cuarto.* Declarar formalmente extinguida la cesión o adscripción de bienes efectuada por el Ayuntamiento a favor de dicho organismo autónomo, así como la asunción por el Ayuntamiento de la totalidad de los bienes propiedad del organismo autónomo y su inclusión en el padrón de bienes y derechos del Ayuntamiento, sin perjuicio de la transmisión de los bienes como consecuencia de la mutación demanial realizada a favor de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud del convenio suscrito el 29 de marzo de 2019.

*Quinto.* Aprobar expresa y formalmente la inclusión de todos los saldos acreedores o deudores del presupuesto de este organismo autónomo local en el presupuesto municipal, así como la subrogación total del Ayuntamiento en los derechos reconocidos, liquidados y cobrados o pendientes de cobro y en las obligaciones contraídas, liquidados y pagados o pendientes de pago, y responder de todo lo derivado de esta materia, a partir de la entrada en vigor de este acuerdo, sin perjuicio de los movimientos, anotaciones u operaciones presupuestarias a realizar en la fecha de liquidación del conjunto del organismo autónomo local. Ocurrirá lo mismo con los saldos de deudores y acreedores no presupuestarios.

Asimismo, con carácter previo a la formalización del acta de conteo con referencia al 31 de diciembre de 2020 o fecha de disolución del organismo autónomo, se procederá a la transferencia al Ayuntamiento de los saldos de las cuentas corrientes del organismo autónomo en las entidades financieras y de caja, cerrándose posteriormente todas las cuentas. Asimismo, se actuará con los avales a favor de dicha entidad y los aportados por ella.

Udalaren eta erakunde autonomoaren arteko kreditu eta zordunketak desegin egingo dira bateratzearen ondorioz, pertsona bera izango baita hartzekoduna eta zorduna.

Desegindako erakunde autonomoaren aurrekontua likidatzearen ondoriozko diruzaintzako gerakinari dagokionez, Udalak hartu beharko ditu egoki diren neurriak. Halaber, kreditu txertagarrien gerakinen saldoak zehaztuko dira.

Oro har, erakunde autonomoaren kontabilitatea Udalarenean txertatuko da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, edo, egoki bada, erakunde autonomoa desegiten den egunetik aurrerakoekin.

*Seigarrena.* Desegindako erakunde autonomoaren dokumentazioa Udal Artxibo Nagusiaren eskuetan uztea, Artxiboak jaso ahal duenean, aldez aurretik identifikatuta, balioetsita, etiketatuta eta, hala badagokio, xahuketa edo espurgoa eginda.

*Zazpigarrena.* Alkateari ahalmena ematea Iurramendi Egoitza Erakunde Autonomoa desegiteko espedientearekin zerikusia duten akordioak har ditzan.

Los créditos y cargos entre el Ayuntamiento y el Organismo Autónomo quedarán disueltos por la unificación, ya que será acreedora y deudora la misma persona.

En cuanto al remanente de tesorería derivado de la liquidación del presupuesto del organismo autónomo disuelto, el Ayuntamiento deberá adoptar las medidas oportunas. Asimismo, se determinarán los saldos de remanentes de créditos incorporables.

Con carácter general, la contabilidad del Organismo Autónomo se integrará en la del Ayuntamiento con efectos desde el 1 de enero de 2021 o, en su caso, desde la fecha de disolución del Organismo Autónomo.

*Sexto.* Poner a disposición del Archivo General Municipal la documentación del Organismo Autónomo disuelto, cuando el Archivo pueda recogerla, previa identificación, valoración, etiquetado y, en su caso, expurgo.

*Séptimo.* Facultar a la alcaldesa para la adopción de acuerdos relacionados con el expediente de disolución del Organismo Autónomo Residencia Iurramendi.

EK\CV GAO-I-2021-03132